



# EDIKTUA

Honen bidez jendaurrean jartzen da zergadunen errolda eta **2022 urteko JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGAREN likidazioa**, 245.349,53 eurokoa guztira. Likidazioa 2022ko abenduaren 13ko 353 zenbakidun ebazpenaren bidez onetsi zen (AJAren 41.18 artikuluan xedatutakoa betez).

Halaber, honen bidez ezartzen da borondatezko diru-bilketarako epea eta modua.

**Ordaintzeko borondatezko epea: 2022ko abenduaren 13tik 2023ko urtarrilaren 26ra.**

*Ordaintzeko modua:* Helbideratutako errezihoak kontuan kargatuko dira 2022ko abenduaren 28an eta helbideratu gabekoak udaleko banku-kontuetan transferentzia eginez edo [www.olazti.com](http://www.olazti.com) web orriaren bidez ordain daitezke. Dirusarrera egiteko ezarritako epea igarotzen bada ordainketa egin gabe, prozedura exekutiboa ireki eta Tributuei buruzko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 117. artikuluan ezarritako errekarguak gehituko zaizkio.

Zergadunen zerrenda jendaurrean jartzea ondoko arau hauen arabera egingo da:

- 1.- *Tokia:* Zerrenda udal bulegoetan jarriko da ikusgai interesatuen esku.
- 2.- *Aztertzeke epea:* Hilabete bat ediktua Olaztiko Udaleko iragarki taulan jarri eta biharamunetik hasita.  
Epe hori bera ezarriko da desadostasuna adierazteko.
- 3.- *Zein organoren aurrean errekurritzen den:* Olaztiko Udaleko alkate udalburuaren ordezkariaren aurrean.
- 4.- *Erreklamazioak aurkezteko tokia:* Udaleko sarrera erregistroan, bulego orduetan.
- 5.- *Errekurtoak:*
  - a) Hilabeteko epean, BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, egintzaren organo egileari zuzendua edo, aukeran, GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua.
  - b) ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA, bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua; alabaina uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko 29/1998 Legeko 8.1. artikuluan zehaztutako kasuetan Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Sailari zuzenduko zaio.
- 6.- *Errekurtoa jartzearen ondorioak:* Errekurtoak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak ezartzeak ez du etengo aurkaratu den egintza horren betearazpena, horrek dituen legezko ondorioekin, eta egintza horien barruan daude kuoten, likidatu diren eskubideen edo korritu eta errekarguen bilketa.

Olaztin, 2022ko abenduaren 13an.

**ALKATEA,**  
**Joseba Vizuete Ascargorta**  
*(elektronikoki sinatua)*